

Baserriak, galtzarak, errekak...

Hamalau baietz!

Ibilaldia Auditiz-Akular eremuan

KORRIKA KULTURALA ALTZAN

- 2003 -



Artzaka
(Arzak)

Artxipi

Auditiz
(Aduriz)

Miraballes
(Milles)

Akular

Juanatxone

Eguzkitza

ARRIBERRI

MOLINAO

Bost pista AuditZ-Akularren hamalau puntu interesgarri deskubritzeko:

Hondamena

Urtez urte baserriak, etxeak, lantegiak eta soroak utzi, hustu, hondatu, erre, erori eta zaborren artean desagertzen ikusi ditugu. Ibilaldi honen bitartez saiatuko gara hondamen honen barruan oraindik galdu ez diren hainbat elementu goraiatzeko. Hauetako batzuk, behar bada, laster batean ezin izango ditugu berriro ikusi.




Haltzadiak

Haritzak, lizarrak, akaziak... baina zuhaitzen artean haltza da nagusi, erreken inguruan multzo handiak osatuz. Haltzadiak hegazti ugarien bizilekua dira: zapelatzak, zozoak, txepetxak, txantxangorria... agian birigarroren bat ikusi ahal izango dugu bidean barraskilo baten oskola hausten saiatuz ondoren jateko.



Baserria

Mendeetan baserriko lana nagusia izan da Altzan eta gaur egun jardura hau, hiriaren presioa oso handia izan arren, apal-apal bizirik dirau... Ardiak, behiak, baratzak eta teknika eta kultibo berriagoekin landutako lurak aurkituko ditugu...



Bideak

Ibilaldia bostehun urte baino gehiago duten bideetan zehar egingo dugu. Nagusia, Errenteria eta Donostiaren arteko galtzada da: Galtzaraborda, Molinao, Santa Barbara, Herrera. Molinaon bertan badago galtzadaren zati bat, bidexidorra bihurturik, ezangarri zaharrak gorde dituenak.



3



Ondarea

Historian egondako gerrek behin eta berriro txikitu dituzte Altzako baserriak. Hala ere, badaude oraindik ikus ditzakegun elementu interesgarri batzuk: Miraballes baserriko klabea, Iparragirreko gurutzea, Arzak armari eta Galanteneko dintela. Badira beste etxe batzuk abizena eman dutenak (Aduz, Berra, Sius, Mirasun), Erdi Aroan sortuak eta une honetan betiko desagertzeko zorian daudenak.

